

8.
zbk.www.garean.org
kotarro

2009ko maiatza

debaldeko alea

Garean-Jarduerak

Lizarran Kantuz

maiatzak 30
ekainak 27
Arratsaldeko 20.00etan
Baxenabarra kaletik

Txokolipuinak


maiatzak 20
Arratsaldeko 18.00etan
La Bota elkarte

Larunblai

maiatzak 16, 23 eta 30
Arratsaldeko 16.30etatik 18.30etara
Gazteriaren Etxean

KULTUR ERROTA**Bertsolaritza:****«Xalbador» antologia**

maiatzak 22
Arratsaldeko 20.00etan
Julian Romano Musika Eskolan



Garean
Euskaldunon Elkarte



Roberto Pérez de Samorán

Irakurri, gozatu eta oparitu Lizarran

Hona hemen Lizarrako euskal irakurleei Gareanek dakarkizuen proposamena: irakurtzen gozatu duzuna bertze norbaitekin konpartitzeko aukera.

Euskaraz irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko asmoz, Garean Euskaldunon Elkarteak «Irakurri, gozatu eta oparitu» egitasmoari hasiera eman dio. Apirilaren 23an hasi, Liburuaren Nazioarteko Egunarekin batera hain zuzen, eta uztailaren 24ra bitartean, hiru hilabetez iraunen du proposamen honek.

Topaguneak antolatutako ekimen honek hiru urte bete ditu jada, eta urtetik urtera gero eta euskara elkarte gehiago dira euskal literaturaren aldeko apustu honetan inplikatu direnak, herriko liburutegi eta liburutegietan batera. Aurten, Gareanek Lizarrara ere ekartzea erabaki du.

Egitasmo honen helbururik behinena irakurketa sustatzea da eta, batera, euskararen erabilera gozagarria bultzatzea, irakurtzeak, konpartitzeak eta oparitzeak dakarten gozamenaren bidez.

«Irakurri, gozatu eta oparitu» jarduerak hiru pauso ditu. Lehenengo eta behin, Lizarrako herri liburutegian euskarazko liburu bat maileguan hartu eta etxean irakurriz gozatu. Ondoren, irakurritako liburuaren gaineko fitxatxo bat bete. Eta azkenik, oparitu: liburutegian emandako txartelarekin irakurleak %25eko beherapena izanen du liburu bat erosteko Lizarrako edozein liburutegian (Clarín, Compás, Felipe, Ino, Irrintzi eta Zunzarren). Garean elkartearen bazkidea izanda, deskontua % 50ekoa izanen da.

Egitasmo honen helbururik behinena irakurketa sustatzea da.

Egitasmo honen antolatzaileek 100 liburu gomendagarrien zerrenda irakurleen eskura jarri dute, adinen arabera sailkatuta; horietatik hamar,

Garean elkarteak bereziki proposatutakoak dira, Lizarrarekin erlaziotan bat dutelako.

Ekimen honetan adin guztietako irakurleek parte hartzen ahal dute. Beraz, animatu eta liburuaren abenturan murgildu eta gozatu!

Baina... zer egin behar da zehazki?

1. Irakurri

Lehenengo pausua irakurtzea da; euskaraz irakurtzea, hain zuzen ere. Herriko liburutegi publikora joan, eta euskarazko edozein liburu maileguan hartzea besterik ez da egin behar.

2. Gozatu

Liburua irakurritakoan, liburutegira bueltatu, noski, eta fitxa sinple-sinple bat bete beharko da: zein izan den irakurritako liburua, zer inpresio eman digun... Fitxa hori beteta, liburuzainak deskontu txartela emango digu, aukeratutako liburu dendan erabiltzeko.

3. Oparitu

Azken pausua liburua oparitzea da: lagun bati, senide bati, bihotzeko azukre koxkorrari... edo, zergatik ez, norbere buruari. Liburutegian jasotako txartelarekin, 25%eko deskontua izango dugu liburu dendan euskarazko beste edozein liburu erosterakoan, edo 50ekoa Garean Euskaldunon Elkarteko kidea izanez gero.

Gure herrian liburu denda hauetan eros ditzakezue zure liburuak: Clarin, Compás, Felipe, Ino, Irrintzi eta Zunzarren.

1, 2 eta 3!!!

Orain, irakurri, gozatu eta oparitu!

Oihartzun handiko ekimena

21 Euskara Elkartek hartuko dute parte aurtengo edizioan, iaz baino lau gehiago:

Arabara: Basalarrina (Laudio)

Bizkaian: Bai Esan (Santurtzi), Berbots (Erandio), Asapala (Mahatserría), Berbaro (Durango), Euskal Birusa (Ermua), Euskarabila (Basauri), Gurien Bai (Iurreta), Uhagon (Markina), Eixu (Zaldibar), Berrizko Udala

Gipuzkoan: AED - Txatxilipurdi (Arrasate), Galtzaundi (Tolosa), Maxixatzen (Azkoitia), Zuhatza (Deba), Goierriko Euskal Eskola-Lazkao, Hitzaro (Ordizia)

Nafarroan: Aizpea (Iruztzun), Garean (Lizarrar), Kima (Altsasu), Karrikaluze (Atarrabia)



Roberto Pérez de Samromán

Lizarrako prentsaurrekoa



Roberto Pérez de Samromán

Euskal liburugintza zenbakitan

Euskal liburugintza edo euskal liburuen ekoizpena. 2007an 2135 titulu eman ziren argitara. Horietatik erdiek baino gehiagok irakaskuntza eta haur-gazte literaturarekin zer ikusia zuten.

30 urte pasa darama Joan Mari Torrealdaik euskal liburugintza aztertzen. 2007 urteari buruz Jakin aldizkarian 170 zenbakian egin duen azken azterketaren berri emanen dizuegu. Guztira 2135 liburu argitaratu ziren urte horretan, nobedadeak eta berrargitalpenak zenbatuz. Asko ala gutxi diren? Euskal Herrirako agian ez dira gehiegi izanen baina euskaldun batek irakurri nahi izanen balitu eguneko sei irakurri beharko lituzke.

2000tik 2007ra eman den bilakaera goranzkoa da, kopurua igo da, alegia, 1519tik 2135era. Baina ez da igoera erregularra izan, 2005eko 2016tik 1818ra jaitsi zen 2006an. Beraz, 2007an erre-kuperazioa gertatu dela erran behar da.

2007an 2135 titulu eman ziren argitara.

Torrealdaik ahuldadeak sumatzen ditu zenbakietan: Ekoizleen erdiak edo gehiago dira titulu bakarra atera dutenak, eta hori gutxi balitz 10 titulu baino gutxiago kaleratu dutenak %86 dira. Gainera, titulu horietako askok ez dute berrargitalpenik izanen.

Azkenik Torrealdaik gaiak aipatzen ditu: liburu gehienak hezkuntza (%32) eta haur eta gazte literatura (%25,59) arloetan kokatzen dira, giza-zientzia (%18,5), helduen literatura (%12)...

Datuek, zenbakiak eta estatistikek irakaspen ederrak ematen dituzte zenbakien atzean dagoenari jaramon eginez gero. Nahi duenak atera ditzala zenbaki horiek izan ditzaketan ondorioak, irakurleek liburuak irakur ditzatela.



Roberto Pérez de Sanromán



Roberto Pérez de Sanromán

Bodegas Lezaun
Asador-Jatetxea

Enoturismo
Bisita gidatuak
Ardo-dastaketak

Lakar (Deierri) NAFARROA
info@lezaun.com - www.lezaun.com
Bodega 948 541 339 - Asador 948 541 231

LIBURUDENDA
INO
PAPERDENDA

Kale Nagusia, 78 - Kale Antxo Ramirez, 2
Tel. eta fax: 948 550 383 · LIZARRA

Mintzakide egitasmoa abian da Izarbeibarrean eta Estellerrian

Euskaraz mintzatzeko eta lagunartean ongi pasatzeko aukera ematen die egitasmoak inguruko euskaldunei.

Egitasmoak euskaldun jaiok eta trebatu nahi dutenak elkartzea du xede. Mintzalagunak astean behin eta talde txikietan biltzen dira modu informalean eta haiek aukeraturako tokian.

Mintzakideri buruz

Mintzakide egitasmoa euskara praktikatu eta euskaraz bizi nahi duten euskaldunei bideraturik dago. Mintza-taldeak eratzen dira, txikiak, hiru edo lau lagunekoak. Talde bakoitzak dinamika propioa du: erabakitzen du noiz eta non elkartu eta zeri buruz mintzatu. Tarteka ekintza amankomunak egiten dira taldeen elkar-ezagutza errazteko eta haien arteko kohesioa lortzeko: afariak, mendi irteerak, poteoa... Horrela euskaldunek elkar ezagutzen ahal dute baita norberaren euskara mailaren hobetzen ere.

Parte hartzeko baldintza bakarra euskaraz komunikatzeko gaitasuna izatea da, zuzentasun mailari begiratu gabe. Euskaraz mintzatzeko gogoia izatea da garrantzitsua, lagun artean ongi pasatzeko aukera baztertu gabe.

Non egiten da eta nork babesten du

Egitasmo hau Euskalerriko hainbat herritan txertaturik dago eta gurean Izarbeibar eta Estellerria biltzen ditu. Izan ere, sustatzaileak bi eskualdetako eragileak dira: Garesko eta

Lizarrako euskaltegiak, *Garelako* Euskaldunon elkartea (Izarbeibarrean) eta *Garean* (Estellerrian) eta Garesko zein Lizarrako euskara zerbitzuak. Sustatzaileekin batera bertze finantziario iturriak ere badira: Euskarabidea, Udalbidea eta CAN.

Gure mintzakideak

Arrakasta izan du egitasmoak, izena emateko epea urtarrilean ireki zen eta otsailerako taldeak osaturik zeuden.

Estellerrian 16 lagun ditugu 5 taldetan banaturik. Talde bat Arandigoienen elkartzen da, bertzeak Lizarran bertan.

Izarbeibarrean ez dira gibelean geratu eta 15 lagun ari dira. Hiru taldetan banatu dira, beraz Estellerrikoak baino handixeagoak. Mañerun, Utergan eta Garesen elkartzen dira.

Mentxu Alkorta da Mintzakideren dinamizatzailea, taldeak osatzen lagundu eta haien segimendua egiten duena.



Garean-jarduerak



XABIER AMURIZA: «XALBADOR, BAT-BATEKO MIRAKULUA»

«Xalbador, bat-bateko mirakulua» izeneko emanaldian, Xabier Amurizak bertsolari baxenafarraren antologia eskainiko digu: Xalbadorren bat-bateko, batez ere txapelketako, bertso hautatuak kantatuko ditu, testuinguru bakoitzaren azalpen labur bat emanez.

Fernando Aire, *Xalbador* goitizenez, (Urepele, Baxenafarra, 1920-1976), inoiz izan den bertsolaririk ezagunetakoa du. Bertsolari liriko eta poetiko honek bere bizitza, familia eta naturari buruz kantatu zuen. Askoren ustez, bertsoetan sentimenduak adierazten ez du parekorik izan.

Xabier Letek berari dedikatutako abesti ezagunean, *Xalbadorren heriotzean*, ongi irudikatzen jakin izan zuen «Urepeleko artzaina».


*Amuriza bertsolari
Txapelduna izan da
1979 eta 1982 urteetan.*

Lizarra, Baxenafarroako Donibane Garazirekin senidetuta dago. Beraz, badira lotura ageriko eta ikustezi asko bertsolari baxenafar honekin lotzen gaituztenak.

Xabier Amuriza bertsolari eta idazlea da. Ahots sakon eta ederrekoa, bertsoetan zorrotz, bide berri asko jorratu du bertsolaritza munduan. Bertsolari txapelduna bitan izan da, 1979 eta 1982 urteetan. Idazle oparoa, nobelak eta bertso liburu asko eman du argitara.

Hortaz, saio bakar batean bi bertsolariekin gozatzeko aukera ezin hobea!

Ekitaldi hau Gareanek antolatzen du Estella-Lizarrako Euskara Zerbitzuaren laguntzaz eta hitzordua datorren maiatzaren 22an, ostirala, arratsaldeko 20.00etan Julian Romano Musika Eskolan izanen dugu.



Jatetxea
Volante

Lagun-taldeendako bazkariak eta afariak
Merkatondoa, 14 · 31200 Lizarra · 948 555 695

ILARGI

ESTELLA-LIZARRA

Dezigual



Foto-inkesta

Liburuak eta irakurketa


Liburuak eta irakurgaiak aitzakia harturik atera gara inkesta egitera. Teknologia berrien eta irudiaren zibilizazioan liburuak edota irakurgaiak Lizarrako euskaldun batzuen bizitzan zer toki duten ikusteko.

- 1.- Zer maiztasunez irakurtzen duzu?
- 2.- Nola/nondik eskuratzen dituzu irakurgaiak?
- 3.- Zer da irakurtzearen hobereana eta zer txarrena?



Ana Mate

- 1.- Egunkaria, egunero. Bospasei liburu urteko, zientzia-fikzioak izan ezik edozein estilokoak.
- 2.- Batzuk, erosita. Beste hainbat, lagunekin, elkarri utziz.
- 3.- Hoberena, pertsonaiak eta lekuak zeureak egitea irudimenari askatasuna emanaz. Gehienetan, jasotako sentsazio on hori ez da irudikatu filmean ikusi eta gero. Txarrena, ezer berezirik ez. Izatekotan, loari kendu dakioken denbora.



Hasier Olo

- 1.- Egia esan, azkenaldi honetan ikasketak direla eta ez dut astirik eleberri on batez gozatzeko. Hala ere, ikasleok guztiz aspertu arte irakurtzen dugu.
- 2.- Irakurtzea gustuko duen lagunen bati eskatuz. Liburuak konpartituz, elkarri aholkatuz. Bestelakoan, liburutegian begirada bat ematea aukera paregabea da.
- 3.- Hoberena entreteniturik, engantxaturik uzteko ahalmena da. Dudarik gabe filma bat baino entretenigarriagoa. Horretarako gustuko eleberria topatu behar eta hori ez da erraz suertatzen.



Nekane Pardo

- 1.- Astean hiru edo irakurtzen ditut. Oporretan gehiago, denbora gehiago dudalako.
- 2.- Liburuak ikastolan, etxean eta liburutegian eskuratzen ditut. Lehen Alloko liburutegiara joaten nintzen baina orain itxirik dago.
- 3.- Hoberena istorioak ezagutzen ditudala, gainera marrazkiak ere gustatzen zaizkit. Ez dauka ezer txarrik, irakurtzea gustatzen zaidalako, inork esan beharrik izan gabe edonon irakurtzen dut.



Regino Etxabe

- 1.- Ezin dut maiztasuna zein den zehaztu, baina beti daukat zerbait irakurtzeko, bai gau-mahaian bai lan-mahaiaren gainean.
- 2.- Egunkarietatik, Internetetik... eta lagun irakurle amorratuengandik.
- 3.- Hoberena ezin dut azaldu barnegozamina da eta. Txarrena...?






GARI eta SEI

ANDER SOLANO




BARKATU BAINA..!
ZIUR NAGO NIRE ITSULAPIKOAK
TXERRI GRIPEREN AZTARNARIK
EZ DUELA...!

IZATEKOTAN, AITORTZEN DIZUT
KRISIAREN ONDORIO LARRIAK
BIOK DITUGULA!



denborapasak



Gurutzegrama

Liburuak eta idazleak

- 1- Gaztelerako idazle unibertsala.
- 2- Liburuak irakurtzeko mailegutan uzten dituzten tokia.
- 3- Liburuak ingelesez.
- 4- Liburuaren ekoizpena.
- 5- Liburu handia, lodia, orri asko dituena.
- 6- Liburu txikia, mehea, orri gutxikoa.
- 7- Liburuak salgai egoten diren tokia.
- 8- Gaur egungo euskal idazlerik ezagunena.

Udalbide.NET
www.udalbide.net

ALBISTEAK ETA INFORMAZIOA GUZTIA ESKURA

Sartu zure udaberrina eta ilus ezazu zure UDALERRIAREN informazio guztia eguneratua.

Ezagutu ezazu Euskal Herria, EUSKAL HERRIAK SAHONERAN atalaren bitartez. Hor aurkituko dituzu Lurraldea, Biztanleria, Ekonomia eta giza-Ita, Euskara eta hazkuntza, Udalerriak eta Euskal Diasporaren inguruko gaurkotutako datu guztiak.

Eta harpidetu zaitez BULETIN ASTEHARI ELEKTRONIKO-ra. Astero jasoko dituzu azken-azkeneko berriak

ZUREKIN

www.udalbide.net
www.udalbitza.eu

Mirari
centro de estética y masajes

c/ urbieta, 1 / 31200 estella (na)
t- 948 554 001

www.centromirari.com

Puy 2009 egitaraua

MAIATZAK 22, OSTIRALA

19.00-20.00 Foruen plaza, gaita-musika.
Udalaren Gaita Akademia.

MAIATZAK 23, LARUNBATA

Goizez eta arratsaldez. Foruen plazan, Street Ball-saskibaloia

18.00 Zezen plaza, "recortador"en lehiaketa.
19.45 Udaletxetik, dantzari-desfilearen irteera.
20.00 Foruen plaza, Larrain Dantzaren IX. Eguna.
20.00-22.00 Kalejira Igarri txarangarekin.
22.00 Foruen plaza, zezensuzkoa.
24.00-01.00 Foruen plaza, kontzertua Fresno taldearekin.

MAIATZAK 24, IGANDEA

11.00 Puy Amabirjina I Erraldoi eta Buruhandien Kontzentrazioa.
13.00 Foruen plaza. Jaialdia erraldioen konpartsekin.
14.30 Santiago plaza. Herri Bazkaria: I. Txerrikume-gorespen Eguna.
18.00 Zezen plazan, nobillero berrien lehiaketa.
18.00-21.30 Foruen plaza, Musikari Berrien Jaialdia.
1. taldea: Los Gardatxos de Konketa (Mejikanak, Rantxerak eta corridoak)
2. taldea: Tilín-Tolón (Country Folk)
3. taldea: Espiritu de contradicción (Pop-Rock) (Tutera 2008 Musika Gaztea lehiaketaren irabazlea).
21.30-22.00 Foruen plaza, gaita-musika
Gaiteros de Estella-Hermanos Montero.
22.00 Foruen plaza, zezensuzkoa.
24.00-02.00 Foruen plaza, musika La Rua, 44 eta Super Sat
01.00 Foruen plaza, Larrain Dantza.
Gaiteros de Estella-Hermanos Montero.

MAIATZAK 25, ASTELEHENA

08.00 Dianak gaitero eta txistulariekin.
08.30 Dianak Estella-Lizarrako Musika Bandak eskainita.
10.30 Irteera Udaletxetik, Lizarrako Udal-korporazioa, Segizio Ofizialarekin lagunduta.
11.00 Puyko Amabirjinaren Basilikan Meza Saindua

gure Zaindari Goitiaren ohoretan.

11.45-13.00 Jota Kalejira Lizarrako kaleetan zehar, Voces Navarras taldearekin.

13.00 Foruen plaza, kontzertua Estella-Lizarrako Musika Bandak eskainita.

18.00-21.00 Foruen plaza, kontzertu-ikuskizuna Oasis Show Musical orkestrarekin.



kotarro

8. zenbakia

Navarro Villoslada, I - 4.E
31200 Lizarra - Nafarroa
Tel. 615 752 842

Argitaratzen du:

Lizarrako GAREAN Euskaldunon Elkarteak



Diseinua eta maketazioa:
Chapitel Komunikazioa

Lege gordailua: NA. 1986-2007
Ale kopurua:800

UDALBIDE
ELKARLAN ELKARTEA

Kotarro aldizkarian agertzen diren artikuluaren edukinaren ardurarik GAREAN Euskaldunon Elkarteak ez du hartzen, edukiaren erantzukizuna bere osotasunean, autoreena baita.